

HAZIA. ARIZMENDIARRIETA MUSIKALA. PRENTSAURREKOA

Ostegunean, Arrasaten, prentsaurreko bat egin genuen gure Elkartek susstatutako HAZIA musikala aurkezteko.

Javier Marcos MONDRAGONeko Komunikazio zuzendariak koordinatuta, aurkezpenaren buru izan ziren Miguel Angel Laspiur gure lehendakaria, Gontzal Mendibil musikalaren zuzendari eta gidoilaria eta Maria Ubarretxena Arrasateko alkatea.

Javier Marcosen eskutik aurkezpenak egin ondoren, ekitaldia hasi zen, Gontzal Mendibilek interpretatutako “Ametsak eraikitzen” abestiarekin, Arrasateko Goikobalu abesbatzako kide Txomin Maidaganek lagunduta.

Ondoren, Laspiurrek hartu zuen hitza, eta 2019an, Mendibilekin elkartu ondoren, ideia nola sortu zen eta Arizmendiarrietari buruzko musikal bat bultzatzeko arrazoiak azaldu zituen. Esan zuenez, Elkartearen lehentasunezko helburua da Arizmendiarrietaren pentsamenduaren balioak enpresan eta gizartean aplika daitezela bultzatzez, eta HAZIA ikuskizun eszeniko musikal bat da, Arizmendiarrietaren pentsamendua, balio humanistak eta ideia sozialak ingurunean zabaldu nahi dituenak. Nabarmendu zuenez, gainera, musikalak gizartea eraldatzeko ereduarekin identifikatzen du haren ibilbidea, gure garairako ere balio duten mezu ukigarriekin, zeinak gure herrialdean eta nazioartean ikur garrantzitsu bihurtu baitira: “Mondragon Esperientzia Kooperatiboa”. Azkenik, “musikala gure bihotzetara iristea eta hunkitu gaitzala nahi dugu”, esan zuen. “Ea lortzen dugun”.

Gontzal Mendibilek xehetasun guztiekin azaldu zuen obra musikalaren proiektua, Arizmendiarrietak bere ikuspegi sozialean txertatzen dituen ideiei, bizipenei eta balioei forma ematen diena, eszena, koreografia eta ilustrazioetan. Kontatutako istorioak, kantatuak, sustrai batetik, ahots batetik, bizitza batetik eta garai zail bateko leku jakin batetik sortzen direnak. Musika adierazpenaren ahalmenak liluratzeko bertutea du, ekintza emozioan inplizituki txertatzen delarik. Hori eta ez beste bat da helburua, Mendibilen arabera. Gero, HAZIaren eszena eta osagai musikalak zehaztu zituen, eszenaratzeak, parte hartze artistikoa eta parte hartze teknikoa. Eta, amaitzeko, musikal modernoa dela adierazi zuen, “egungo munduan sartzen diren mezuekin, poema bihurtuta, eta horiek musika bihurtuta”.

Maria Ubarretxenaren hitzaldian, Arizmendiarrietaren esaldi bat aipatu zuen: “Erein zenuena jasoko duzu”, eta hark Arrasaten asko erein zuela, eta gure herriaren nortasunaren zati handi bat hari zor diogula adierazi zuen.

Ekitaldia amaitzeko, Mendibilen beste abesti bat, musikala irekitzen dena: “Hazia zen hasieran”; kasu horretan, Arkaitz Gartziandia aktorearekin batera aritu zen, hark egiten duelarik Arizmendiarrietarena HAZIA musikalean.

Prentsaurrekoan tokiko hedabide hauek izan ziren: Goiena, Mondraberri, Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa, TU Lankide.

Bertan izan ziren, halaber, Ibaiarteko Jon Apraiz, Iñaki Maidagan Goikobalu abesbatzako zuzendaria, Aritz Salamanca musikalaren koreografia eta dantza zuzendaria, eta musikalaren produktorea den Maxma Produukzioetako Maxima Gutierrez.